

Urdaibaiko Biosfera Erreserbari buruzko iritzien ikerketa



2005

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACION DEL TERRITORIO

 **ingurumena.net**

Documento: Urdaibaiko Biosfera Erreserbari buruzko iritzien ikerketa

Fecha de edición: 2005

Autor:



Propietario: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Urdaibai Biosfera Erreserbaren Patronatua

Aurkibidea

Aurkezpena	4
Metodologia	6
2. Ingurumena	
2.1. Ingurugiroaz norberaren ardura	9
2.2. Ingurugiroaren arduraz gizarteak antzematen duena	11
2.3. Norberak hartzen dituen neurriak ingurugiroa zaintzeko	13
2.4. Urdaibai Biosferaren Erreserbaren ingurugiro- egoeraz biztanleriak duen hautematea	20
2.5. Ingurugiroaren babesean interesa duten kolektibo eta gizarte agenteak	22
3. Urdaibaiko Biosfera Erreserba	
3.1. UNESCOk egindako Biosferako Erreserba moduko adierazpenari buruzko informazioa	27
3.1.1. Nola jakin dute berria	28
3.1.2. Urdaibaiko Biosferako Erreserbari buruzko adierazpenari buruzko eritzia.	30
3.2. Urdaibai Biosferako Erreserbaren babesa erregulatzen duen araudia dagoelari buruzko informazioa	32
3.2.1. Araudiari buruzko eritzia	34
3.3. Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren Ugazaberiar buruzko informazioa	36
3.3.1. Ugazaberiar buruzko eritzia.	39

4. Urdaibain bizi den biztanleriak gehien bizi dituen arazoak	43
4.1. Inguruko egoera ekonomikoaz egiten den balorapena	47
4.1.1. Norberaren egoera ekonomikoaren balorapena	50
4.2. Udal- ekipamenduei buruzko eritzia	55
4.3. Eskualdeko ekipamenduei buruzko eritzia.	57
5. Urdaibai- aldearen aspektu positiboak	62
5.1. Bizi diren lekuarenganako poztasuna	64
5.2. Denbora librearen gozamina Urdaibain	65
Erantsi	72
Bibliografia	83

Aurkezpena

Aurkezpena

Urdaibaiko Biosfera Erreserban bizi den biztanleriaren iritziaren egoera, 2005. urtea-ri buruzko ikerketa hau, UNESCO-k eremu honi gune babestuaren maila eman zionetik hogeit hamar urte pasatu direnean eraman da aurrera.

Orain dela hamar urte egin zitzaion eremuan bizi den biztanleriari Urdaibain bizitzaren gaineko iritziari buruzko lehenengo kontsulta eta 2000. urtean eraman zen aurrera bigarrena. Oraingo ikerketak, bost urte beranduago, helburu berdina izaten jarraitzen du.

Hurrengo ikerketak, babes berezidun eremu honetan bizitzeari buruzko biztanleriaren iritziak aldatzen doazen edo finkatu egiten diren ikusteko gailua da. Ikerketa hau Urdaibaiko errealtate sozioekonomikoaren gaineko beste alde batzuegatik eta portaera pertsonalengatik eta ingurumenaren egoera eta zaintzarengatik galdetzeko ere erabiltzen da.

Inguruarekiko mirespena ahalik eta haundiago bihurtzen ari da. Eremuaren edertasun ukaezinaz gain, azken urteotan gunearen balore paisajistikoan sakontzen duten izaera akademikodun argitalpenak eta hamaika testu, gida, liburuxka... agertu dira, honen kontserbazioa eta hobekuntzaren atzetik doazen izaera materialdun jokabidez gain.

Lan guzti honek Urdaibain bizi direnek lurralde honekiko gero eta identifikazio maila altuagoa izatea lortzen ari da eta hau oraingo ikerketa honetan azaleratzen da.

Metodologia

Metodologia

Esan bezala, ikerketa hau bost urtero eramaten da aurrera Urdaibaiko eremuari buruzko aspektu ezberdinez bertako biztanleriaren iritziaren egoera ezagutzeko asmoz.

Ikerketa honetan ere, lehenengo azterketan landutako inkesta berbera oinarrizko tresna metodologikoa izaten jarraitzen du, azken urte hauetan eman diren aldaketak zehaztea baita helburua.

Aurreko azterketan bezala, lehenengo kapituluak, biztanleriak ingurumenaren egoerari buruz duen somaketa aipatzen du. Geroztik, UNESCO-ren partetik Biosfera Erreserba-ren Deklarazioari, hau babesten, agintzen eta erregulatzen duen legeriaren erabilpen eta gestioari eta baita Ugazaberiaren gaineko iritziari buruzko jendearen informazio maila ezagutu nahi izan da.

Eremuko arazoei dagokiona izan da ikututako aspektu garrantzitsuetako bat, inkestatutako pertsonen balorazio subjektiboa datu ofizialek erakusten duten errealitatearekin alderatuz. Biztanleriak baloratzen dituen alde positiboak eta jendeak bere aisialdia nola gozatzen duen ere izan dira batutako beste datu batzuk.

Inkesta mantentzen den arren, aurreko ikerketan bezala, galdera berri batzuekin zabaldu egin da, biztanleria noizbait Ugazaberiaren instalazioetara jo duen edota etxean eremuari buruzko liburuxka informatiboren bat (liburuxkak, mapak, liburuak...) duten jakiteko modukoak. Horrez gain, 21 Udal Agenda-ren ezagupenari eta gai honen gain udal mailako lan saioetan parte hartzeko interesari buruz galdetu egin da.

Galdeketa 33 galdera ditu. Urdaibaiko eremuko zoriz aukeratutako pertsonen artean etxez-etxeko galdeketa izan zen udalerrien tamainaren arabeko proportzionaltasun irizpide bat jarraituz, neurri txikienekoak gorai patuz beraien balorazioak egin ahal izateko eta aurreko ikerketetan jarraitutako irizpide berbera jarraitu egin zen sexua eta adin tarteei dagokienez.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren mugaketa geografikorako, aurreko ikerketetan barne sartutako udalerriak errespetatu egin ziren.

Aztertutako biztanleria gutxi gora behera 35.000 pertsona heldu izan dira. Neurri honetako biztanleria batentzako, %95eko konfidantza maila eraginez, 405 pertsonen osatutako lagin bat kanporatu da, \pm %5eko akats tartearekin emandako erantzunetan.

Galdeketa maiatzeko azken bi asteetan eta ekaineko lehenengo astean eraman zen aurrera eta euskaraz bete egin zen ahal izan zen neurrian.


Jasotako datuak SPSS programa estadistikoarekin ustiatuak izan ziren, kontrol aldagarriak galderen gehiengoarekin gurutzatuz, txostenaren elaborazioan informazio hau funtsezko oinarria izan zelarik.

Ingurumena

2.1. Ingurugiroaz norberaren ardura

Aurreko galdeketetan egin den moduan, oraingo inkestan ere, ingurugiroaren egoeraz ardura sentitzen duten galdetu zaie.

1 Grafikoa. Norberaren ardura ingurugiroaz. 1995-2005 urteak



Ikerketa honetan, %92ak baietz erantzun du. Portzentaia hau haundituz joan da modu progresibo batean, horrela, duela hamar urte, 1995ean, %86ak erantzun zuen baietz eta 2000. urtean %92ak eta azkenengo honetan, lehen esan den bezala, badira %92 baietz erantzun dutenak, hau da, galdetuak izan diren 10 pertsonetatik, 9k baino apur bat gehiagok .

Baiezko erantzunen portzentaiarik haundiena, 30 eta 54 urteen arteko pertsonen taldeek eman dute eta hauek baino nagusiagoak direnak, denborarekin beraien sentikortasuna haunditu dute.

Duela hamar urte, gazteak ziren gehien arduratzen zirenak ingurugiroaren hondaketaz, baina hauek buruzagintza galtzen joan dira eta beraien lekua 30 eta 54 urte bitartekoek bete dute. Talde honek, 2000 urteko ikerketan, batzbestekoa gainditzen zuen portzentaia lortu zuten.

Datu hauekin, kontzientziatzeko arlo ezberdinetatik egin den lanaren fruituak ikusten direla pentsatu daiteke. 30 urtetik gorakoen artean baiezko erantzunak haundituz joan diren heinean, gazteen artean baiezko kopuruaren gutxitze bat ikus daiteke, nahiz eta portzentaia altua izan (30 urte baino gutxiago dutenen %88ak baiezko erantzuna eman du).


Konstante bat dena eta buruturiko ikerketa ezberdinetan aurkitu denez, geroz eta ikasketa maila altuagoa izan, ingurugiroaz duen ardura haundiagoa da. Gizona ala emakumea izatea ez du inolako eraginik honetan.

Aurreko ikerketetan, landa- kostaldean bizi zirenek zuten sentikortasun gehiago ingurugiroaz, ikerketa honetan, nahiz eta diferentzia oso txikia izan, Bermeo izan da batzbestekoaren gainean ibili dena. Udal honek, lehenengo ikerketan, portzeintaiarik baxuenak eman zituen eta gaur egun, narriadura ekologikoaz ardura gehien dutenak dira.

2.2. Ingurugiroaren arduraz gizarteak antzematen duena

2000. urteko ikerketan moduan, oraingoan ere inkestatutakoei populazioa orokorrean ingurugiroaren egoeraz arduratuta dagoen galdetu zaie. Ikerketa honetan irten diren datuak aurrekoen antzekoa da.

2. Grafikoa. Gizartean ingurugiroaz dagoen ardura



Inkestatutako pertsonak, nahiz eta beraiek arduratuta egon ingurugiroaren egoeraz, jendearen ardura txikiagoa dela uste dute. %92ak erantzun du arduratuta dagoela eta hauek uste dute gizartean portzentaia hau %42an kokatuko litzatekeela. Konkreterik, %34a nahiko arduratuta egongo litzateke eta %8ak interes asko eukiko luke. Aurreko ikerketan ere diferentzia hau ikus zitekeen, ardura orokorrean %43 batean zenbatzen zen.

Aurreko ikerketa moduan, gazteen artean agertzen dira erantzun kritikoenak. Adin tarte honen heren batek bakarrik uste du populazioak ingurugiroaren egoeraz ardura sentitzen duela eta helduen artean, bitik batek uste du.

Ikasketa maila altuagoa dutenek, ingurugiroarekin dagoen inplikazio mailari buruzko eritzi ezkorragoa dute. Aurreko ikerketan bezala, baserrialdean eritzi baikorragoak dituzte (%53ak ardura maila nahikoa edo asko dela uste du) eta Bermeon egiten da balorapen ezkorrena. Oraingoan, emakumeak izan dira eritzi ezkorragoak azaldu dituztenak.

2.3. Norberak hartzen dituen neurriak ingurugiroa zaintzeko

Azkenengo 10 urteetan norberaren inplikazioa ingurugiroa zaintzeko orduan, jokabidearen arabera, aldaketa ezberdinak izan dituela ikus daiteke.

2. kuadroa

INGURUMENA ZAINTEKO NEURRIAK HARTZEN DITUZTEN PERTSONEN PORTZENTAIK.1995-2005 URTEAK			
	1995	2000	2005
Papera eta kartoiaren bereizketa	69	85	88
Pilen bereizketa	61	80	83
Beiraren bereizketa	56	81	80
Plastiko, tetrabrik, lata bereizketa	**	62	75
Garbigunea erabili du	**	24	64
Udal produktuen kontsumoa	46	76	55
Ur eta energi aurrezte	47	47	42
Garraio publikoen erabilera	32	50	42
Produktu ekologikoen kontsumoa	13	26	21
Bat ere ez	10	5	5

*Erantzun bat baino gehiago emateko aukera

** Ez dago daturik

Ikerketa honetan parte hartu dutenen gehiengoak **papera eta kartoa** birziklatzen du, **%88ak** konkretuki. Neurri honetan gero eta jende gehiago inplikatzen da.

Esfortzu hau, Urdaibaiko udal ezberdinetan batzen den kartoi eta paper kantitatean isladatzen da¹.

Kasu honetan, 55 urtetik gorakoak dira neurri honetan gutxien inplikatzeko direnak, batz bestekoaren azpitik geratuz. Gizona edo emakumea izateak ez du inolako eraginik honetan. Bizilekua kontutan hartzen bada, gernikarrak dira paper eta kartoia gehien birziklatzen dutela esaten dutenak. Hain zuzen ere, Gernikan biztanle bakoitzeko batzen diren kiloak, batz bestekoaren gainetik daude. (ikus eranskina 2.1. kuadroa).

Galdetutakoen artean, **%83ak pilak** zaborrontzi berezietan usten dutela baieztatzen dute. Datu hau, 1995 urteko datuarekin konparatuz gero, ingurugiroa zaintzeko dauden neurrietatik modu proportzional batean, jende gehien gehitu da honetara. Hau, pilak batzeko zaborrontzi bereziak dituzten gero eta udal gehiago daudelako eta pilak naturara kontrolik gabe botatzeak dituen ondorioak azaldu direlako izan da.

Adina eta emakumea eta gizona izatea ez duela inolako eraginik pilen erabileran esan daiteke. Bizilekuari dagokionez, batzeko gero eta leku gehiago daude eta Bermeo bakarrik kokatzen da batz bestekoaren azpitik.

¹ Kimar *informetik jasotako datuetatik eginda. Ingurugiroaren eta Urdaibai Biosfera Erreserbaren garapenaren egoera. Sevillano estrategiaren helburuen lorpenaren gradua. 2004ko Urria. 35. orr.*

Hamar pertsonetatik 8k diote **beira** batzen dutela gero birziklatzeko. Portzentaia hau 2000 urteko ikerketan lortutakoaren oso antzekoa da. Urdaibaiko Biosferako Erreserban eta orokorrean udal guztietan, jasotako beira kopurua haunditu da azken urteetan².



Zonaka, Bermeon, beira jasotzen dutela esaten dutenen kopurua batz bestekoaren azpitik kokatzen da. Gernikan egoera asko hobetu da 2000 urtekoarekin konparatzen badugu. 2000 urtean, Gernikan %70ak bakarrik jasotzen zuen beira birziklatzeko eta oraingo ikerketan berriz %85ak, Urdaibaiko portzentaiarik altuena.

Bizilagun bakoitzeko kilo pilaketari dagokionez, 2.1 eranskin kuadroan, udal bakoitzeko desbiderapena ematen da, hauetariko batzuetan hostalaritza eta turismo sektoreak oso garrantzitsuak direlako.

Emakume eta gizonen artean ez dago diferentziarik beiraren birziklapenaz arduratzeko orduan, baina bai nabaritu daitezkeela diferentziak adinaren arabera. Gazteak dira honetaz gutxien arduratzen direnak diotenak.

Galdetutako lau pertsonetatik, hiruk beraien etxeetan **plastikoa, tetrabrikak eta latak** birziklatzen dituztela baieztatzen dute. Bost urteetan zehar, portzentaia %62ftik **%75era** igo da. Ontzien kiloak ere haunditu dira azkenaldian Urdaibain eta bere herri batzuetan.

² Op. Cit. 37.orrr.

Hautaketa honi dagokionez, Gernika da batuz bestekoa nabarmenki gainditzen duen udala. Galdetutako hamar pertsonetatik, ia bederatzik esan dute plastikoa, tetrabrikak eta latak birziklatzen dituztela. Datu hauek kontra egiten dute 2000 urtean egindako ikerketan lortutako datuekin. Urte honetan, Gernikako biztanleak ziren neurri honetan gutxien inplikatzeko zirenak, bakarrik galdetutakoen %55ak mota honetako ontziak banatzen zituztela esan zuen eta 5 urte beranduago, %88ra heltzen dira.

Beste aldagaiek, sexua eta adina bezala, ez dute eraginik ekintza honetan, baina ikasketa maila txikiagoko pertsonak neurri txikiago batean neurri hau betetzen dutela ikusi daiteke.

Galdetutakoen artean bi herenek, hau da, **%64ak garbigune** erabili dutela adierazten dute. Garbigune etxeko hondakin batzuk usteko balio du. 2000 urteko ikerketatik gaur egun arte, etxeko hondakinak garbigunera eramaten dituztenen kopurua nabarmenki igo da, %24tik %64ra pasatuz.

Gernikako biztanleak dira garbigune gehien erabiltzen dutela esaten dutenak, hamar erantzunetatik ia zortzi baiezkoak dira. Bermeon eta baserrialdean eta kostan erantzun hauek ez dira hamarretik seira heltzen.

Oraingoak adinak badu eragina hondakinak eramateko orduan. Adineko jendea da gutxien erabiltzen dutenak. Geroz eta ikasketa maila altuagoa izan, garbigune gehiago erabiltzen da.

Galdetutakoen artean, erdiak baino gehiagok **udaleko elikagaiak kontsumitzen dituzte**, hau da, **%55ak**. Portzentaia hau nabarmenki gutxitu da 2000 urteko ikerketan lortutako datuekin konparatzen bada. Urte horretan %72ak produktu hauek kontsumitzen zituela baieztatu zuen.

Kasu honetan, Gernikarrak dira udaleko elikagaiak gehien kontsumitzen dituztenak, %72ak kontsumitzen dituela dio. Portzentaia hau haunditu egin da 2000 urteko %65arekin konparatuz gero.

Bestalde, Bermeon eta baserrialde eta kostaldean erantzunak erdira jeitsi dira. 2000 urtean hamarretik zortzik mota honetako kontsumoa egiten bazuten, gaur egun, hamarretik lau dira bakarrik.

Pentsiodunak eta etxeko andreak dira udaleko produktuen kontsumoaren batz bestekoa gainditzen duten bakarrak. Horregaitik, denbora gehiago izateak, produktu hauek erostea errezten duela pentsatu daiteke.

Ura eta energia aurrezten dutela esaten dutenen portzentaia neurri txiki batean gutxitu egin da **%42ak** aurreko ikerketekin konparatzen badugu. 1995 eta 2000 urteetan emandako erantzunen artean, %47ak baiezkoa erantzun zuen. Ikasketa maila altuenetakoek, beraz lan kualifikatuagoak dituztenek dira neurri hau hartzen dutela esaten dutenak. Beste kasuetan bezala, 30 eta 54 urte artekoak dira ura eta energia gehien aurrezten dutenak.

Bizilekua kontutan hartzen bada, Gernikan gero eta gehiago aurrezten dute eta Bermeon eta baserrialdean eta kostaldean gero eta gutxiago.



Garraibide publikoaren erabilerari dagokionez, 2000 urtearekin konparatzen bada, era honen bidez lekualdatzen direnen portzentaia gutxitu egin da, %50etik, **%42ra** pasatu da. Garraibide publikoaren erabilpenaren gutxitzea kotxeentzako parke gehiago daudela ulertu daiteke. 2000 urtean Bermeo- Gernika eskualdean 16555 kotxe zeuden eta 2003 urtean, 17.961ra heldu ziren. Motozikletekin berdina gertatu da, 2000 urtean 792 zeuden eta hiru urte beranduago 876. Urdaibaiko herri gehienetan, etxe bakoitzeko kotxe bat baino gehiago dago. (ikus eranzkineko 2.2 kuadroa)

Garraibide publikoa erabiltzen dutenen profilari dagokionez, emakumeek gizonen baino gehiago erabiltzen dute, baina ezberdintasuna ez da 2000 urtean bezain nabaria. Urte horretan emakumeek gizonen kopurua bikoizten zuten nahiz eta gaur egun, oraindik trena edo autobusa erabiltzen duten 10 pertsonen artean, sei emakumeak dira.

Gazteriak ere garraibide publikoa erabiltzen du, gehien bat ikasketa zentruetara doazenean. Pentsiodunak edo langabezia daudenak ere garraibide publikoa gehiago erabiltzen dute.

Duela bost urte bezala, oraingoan ere gernikarrak dira garraibide publikoa gehien erabiltzen dutela baieztatzen dutenak, eta hau baieztatzen dutenen kopurua haunditu egin da. Baserrialdean eta kostaldean berriz, baiezko erantzunak gutxitu egin dira. 2000 urtean galdetutakoen %50ak erabiltzen zuela baieztatzen bazuen, gaur egun, %13ak bakarrik erabiltzen du.

Galdetutakoen artean, **hamarretik bik produktu ekologikoak kontsumitzen dituela** baieztatzen du. 2000 urteko ikerketako datuekin konparatzen badugu, kopurua gutxitu egin dela ikusi daiteke, urte horretan %26ak kontsumitzen bait zituen. Gernikarrak dira produktu hauek gehien kontsumitzen dituztenak, ikasketa maila altuenak dituztenak eta kualifikazio altuagoko lanak egiten dituztenak baina baita adin nagusienekoak eta pentsiodunak.

%5ak bakarrik baieztatzen du maila pertsonalean ez duela ezer egiten ingurugiroa mantentzeko. Portzentaia hau 2000 urtetik mantendu egiten da, eta 1995 urteko kopuruaren erdia da. Azken honetan, %10ak erantzun hau eman zuen.


Ondorio moduan esan daiteke, Urdaibaiko Biosferako Erreserban bizi den biztanleria, gero eta inplikatuagoa dago papera, kartoia, pilak, beira, plastikozko ontziak, tetrabrikak eta latak beraien etxean birziklatzeko orduan. Halaber, garbigune gero eta gehiago erabiltzen dute etxeko hondakinak usteko.

Bestalde, ingurugiroaren egoera hobetzeko hartu daitezkeen beste neurriak, udaleko produktuak eta produktu ekologikoak kontsumitzea, ura eta energia aurrezteak eta garraiobide publikoa erabiltzea bezala, gero eta gutxiago egiten dira intentsitate ezberdinean, 2000 urtearekin konparatzen badugu.

2.4. Urdaibai Biosferaren Erreserbaren ingurugiro- egoeraz biztanleriak duen hautematea

Azken hamar urteetan zehar Urdaibai Biosferaren Erreserbaren ingurugiro- egoeraren **balorapen positiboen kopurua haunditu egin da, negatiboak gutxitu diren bitartean**. Hala ere, **gehien ematen den eritzia, egoera hori hobetu daitekela da.**

3. Grafikoa. Urdaibairen ingurugiro- egoera. 1995- 2005 urteak



Galdetutakoen artean, **%19ak egoera egokia** dela uste du, 2000 urtean berriz portzentaia hori %18koa izan zen eta 1995ean %12. Balorapen hau egiten dutenak Gernikan eta herri txikietan bizi direnak dira. Adina, sexua zein ikasketa maila bezalako aldagaiek ez dutel eraginik beraien iritzietan.

Galdetutakoen gehiengoek, **%52ek**, Urdaibaiko ingurugiro- **egoera hobetu** daitekela uste dute. Bermeoko biztanleria da gehien bat erantzun hau aukeratu dutenak, eta aurreko kasuan moduan, beste aldagaiek ez dute eraginik erantzunean.

Portzentaia hau mantendu egiten da 2000 urtekoarekin konparatzen bada, baina 10 puntutan igo da 1995 urtekoarekin konparatzen badugu. Biztanle askoren ustetan, ezin da jausi norbere- atsegintasunean eta gelditu ezer egin barik, natura zaindu behar bait da.


Portzentaia txikiago batek, **%16ak**, ingurugiro- egoera **erregularra** dela uste dute. Egindako hiru ikerketetan, portzentaia hau mantendu egin da. Kritika hau, gehien bat Bermeon bizi direnek egiten dute. Egoera hau mantendu egin da denboran zehar eta beste aldagaiek ez dute eraginik egoera honetan.

Azkenik, **egoera txarra** dela uste dutenen portzentaia, hamar urte hauetan erdira jeitsi da. 1995ean %17ak erantzun zuen zentzu honetan eta aurtengo ikerketan berriz, **%8ra** jeitsi da. Portzentaia hain txikia izatean, ez dira adierazgarriak erantzun hau eman dutenen ezaugarriak.

2.5. Ingurugiroaren babesean interesa duten kolektibo eta gizarte agenteak

Aurreko ikerketetan bezala, aurtengoan ere jakin nahi izan da nola baloratzen duen jendeak kolektibo zein gizarte agenteen inplikazioa ingurugiroaren babesean.

4. grafikoa. Ingurugiroaren babesean inplikaturik dauden kolektibo zein gizarte agenteak. 1995- 2000 urteak



Aurreko ikerketetan bezala, galdetutakoen artean, gehiengoak, **%68ak, talde ekologistek** ingurugiroaren babesean interes handia dutela uste du.

Ikerketa honetan, Gernikako herritarrak izan dira gehien bat talde ekologisten lana baloratu dutenak. Galdetutako hamar pertsonetatik ia zortzik aipatu dituzte. Baserrialdean eta kostaldean batz bestetik behera dagoen balorapena ematen diete. Hala ere, talde hauek baserritarrekin batera, hobekien baloratutako taldeak dira.

Jende gazteak dira gehien bat talde hauek positiboki baloratzen dituztenak eta ikasketa maila altuko pertsonak. Emakume zein gizona izatea ez du eraginik erantzun hau emateko orduan.

%55a baserritarrak aipatzen ditu eta duela hamar urte bakarrik %30ak aipatu zituen. Gernikarrak dira kolektibo hau gehien baloratu dituztenak, baita adin nagusienekoak eta ez dago ezberdintasunik emakume zein gizonen artean ezta ikasketa mailen artean.

Jende askok lehen sektoaren krisia, nekazaritza jardueraren uztea eta baserriaz bizitzeko dauden zailtasunak komentatu ditu. Azken hamar urteetan, lehenengo sektorean 2427 lan egitetik 1991 urtean, 2001 urtean 1605 izatera pasatu ziren (eranzkinean ikus 2.3 kuadroa)



Hirugarren postuan irakasleak agertzen dira. Biztanleriaren **%29ak ikasketa zentruetan** ingurugiroaren babesaren inguruan egindako zentzibilizazio lana baloratu du. 1995 urteko ikerketan galdetutako %14ak aipatu zuen kolektibo hau, eta hamar urte hauetan bikoiztu egin da portzentaia.

Kolektibo honen inplikazioa gehien bat Gernikako populazioak, 30 eta 54 urtetakoek, ikasketa maila altukoek eta emakumeek gizonak baino gehiago baloratzen dute.

Galdetutakoen laurden batek **Administrazioa** ingurugiroaren babesean inplikatzeko delako uste du. Azken hamar urteetan beraien balorapena %14tik **%25era** pasatu da.

Administrazioaren inguruan eritzi positiboak baserri- kostaldean bizi direnen artean haundituz doa. 1995ean herri txikietan bizi direnen %10ak aipatu zituen eta hamar urte beranduago portzentaia hori %40ra igo da, nahiz eta 2000 urtean biztanleriaren %20ak modu positibo batean baloratu.

Gernikako biztanleen eritzia ere hobetu egin da administrazioarekiko. 2000 urtean %7ak bakarrik aipatu bazituen, aurtengo ikerketan %26ra igo da. Bermeon eritziak ez dira ia aldatu, portzentaia %17aren inguruan mantentzen delarik, nahiz eta portzentaia hau bataz bestekoaren azpitik dagoen.

Administrazioari buruz balorapen positiboa egin dutenek 30 urte baino gehiago dituzte, lehen mailako ikasketak gainditu dituzte eta gizon gehiago daude.

Portzentaia txiki batek beste mota batetako gizarte agenteak aipatu dituzte eta inor ez dela ingurugiroaren babesean inplikatzeko uste dutenen kopurua gutxitu egin da.

Laburpen moduan, Urdaibaiko Biosferako Erreserban bizi direnen pertsona gehienek artean, inguruko ingurugiro egoera hobetu daitezkeela uste dute eta egoera txarra dela uste dutenen kopurua gutxitu egin da.

Ingurugiroaren babesean inplikaturik dauden kolektibo zein gizarte agenteei dagokienez, talde ekologistak eta baserritarrak dira biztanleriaren erdia baino gehiagoren aitorkuntza dutenak. Gero eta gehiago baloratzen da baserrien garrantzia baserrialdearen babesean, lehengo sektorearen lana gutxitzen den bitartean.


Ikasketa zentruetatik eta administrazioetatik egiten diren balorapenak asko hobetu dira, nahiz eta zentzu honetan erantzunen portzentaia %29 eta %25ean kokatu.

Urdaibaiko Biosfera Erreserba

3.1. UNESCOk egindako Biosferako Erreserba moduko adierazpenari buruzko informazioa

UNESCOk Urdaibai- aldea Biosferako Erreserba moduan adierazi zuenetik ia hogeit hamar urte pasatu dira. Biztanleriaren gehiengoak ezagutzen du adierazpen hau, horrela galdetutakoen artean, hamarretik bederatzik informazio hau du. 1995 urtean %63ak ezagutzen zuen eta 2000 urtean %86ak.

Urdaibai Biosferako Erreserba moduko adierazpenaren ezagutza- mailaren bilakaera. 1995- 2005 urteak



Urdaibain bizi den biztanleriaren gehiengoak badaki inguru hau babes berezia duela. Hala ere, %10ak ez du informazio hau eta kopuru honen profila honako hau da: adin nagusiko jendea, ikasketa maila txikikoa, baserri- aldean bizi dira eta gehien bat emakumeak dira.



3.1.1. Nola jakin dute berria

Aurreko ikerketetan bezala, oraingo honetan ere, Urdaibain bizi direnek inguruan gertatzen denari buruzko informazioa nola jasotzen duten jakitea interesgarria da, bereziki ingurugiroaren aspektuei buruz.

2.4. Kuadroa

BERRIA EZAGUTUTAKO BIDEAK ADINA ETA BIZILEKUAREN ARABERA. PORTZENTAIAZKO BANAKETA							
		UDALERRIAK			ADINAK		
		Gernika	Bermeo	Land.-Kos.	15-29	30-54	55-69
Komunikabideak	53	44	67	47	37	64	51
Gizarte Harremanak	21	21	23	17	34	18	13
Publizitatea	12	17	13	2	6	15	14
Administrazioaren bidez	5	6	5	4	—	6	8
Ez daki	17	20	14	18	27	11	20

Inguruan gertatzen denari buruz informatzeko, gehien erabiltzen dena **komunikabideak** dira. Alde hau Biosferako Erreserba dela dakitenen artean, **%53ak** egunkari, telebista eta irratia bidez jakin du. Kasu honetan, Bermeon bizi direnak izan dira gehien aipatu dituztenak eta adina kontutan hartuta, 30 eta 54 urteen artekoak. Ikasketa maila eta sexua bezalako aldagaiak kontutan hartuta, ez dute inolako eraginik erantzun honetan.

Bigarrenez, aurreko ikerketetan bezala, giza harremanak daude, hau da, lagunak, ikasketa zentrua eta abar. Galdetutakoen artean, **%21ak** aipatu du informazioa jasotzeko modu hau. Urdaibai Biosferako Erreserba dela jakiteko bidea giza harremanak izan direla esan dutenen artean, gehien bat baserri eta kostaldean bizi direnak eta gazteenak izan dira.

Galdetutakoen artean, **%12ak publizitatea** aipatzen du informatzeko modu bezala. Portzentaia hau asko haunditu da 2000 urteko %4arekin konparatzen badugu. Gernikan bizi direnak eta 30 urte baino gehiago dituztenek aipatu dute baliabide hau neurri haundiago batean.

%5ak bakarrik aipatu du Administrazioa informazio iturri moduan. Aurreko ikerketetan bezala, jende gutxik aipatu du administrazioa informazio iturri moduan, nahiz eta inguruari buruzko informazio gehiena Urdaibaiko Ugazaberiari atera den. Biztanleriak ez du hau antzematen eta gazteen artean inork ez du aipatu modu hau informazio iturri bezala.

%17ak ez daki nola jakin duen berri hau. Portzentaia hau haundituz joan da denborarekin, berria eman zenetik gero eta denbora gehiago pasatuz gero, zailagoa delako informazio iturriaz gogoratzea.

3.1.2. Urdaibaiko Biosferako Erreserbari buruzko adierazpenari buruzko eritzia

Ikerketa honetan Urdaibai Biosferako Erreserba moduan adierazteari buruzko eritziak ikusita, balorapena gero eta hobea dela ondoriozta daiteke. Galdetutakoen artean %77ak erabaki positiboa izan zela uste du, duela 5 urte berriz, %67ak.

Hala ere, erabaki hau negatiboa dela uste dutenen erantzun kopurua finkatu egiten da. Nahiz eta hauek gutxiengo bat izan, azken bi ikerketetan %5a eta %4a izan dira baina lehen ikerketan 1995 urtean portzentaia %11koa izan zen.

Adierazpen hau ez- nahikoa izan dela uste dutenen kopurua apur bat haunditu da, %9tik %11ra. Gai honen inguruan eritzirik ez dutenen kopurua apur bat gutxitu da, %15etik %4ra.

2.5. Kuadroa

BIOSFERA ERRESERBAREN DEKLARAZIOAREN GAINEKO IRITZIA. 1995-2005 URTEAK.			
Portzentaia bertikalean			
	1995	2000	2005
Positiboa	70	67	77
Negatiboa	11	4	5
Ez nahikoa	3	9	11
Ez daki	15	15	4
Beste iritziak	1	5	4



Adierazpen hau positiboa dela esan dutenek, galdetutakoen artean hamarretik ia zortzik, Bermeon bizi dira gehien bat. 2000 urtean, neurri honekin poz haundien sentitzen zuen herria moduan kokatu zen. Balorapen

positibo hau gehien bat 30 eta 54 urtekoek, lehen mailako ikasketan gainditu dituztenek eta gizonek emakumeek baino apur bat gehiago egiten dute.

%5ak bakarrik balorapen negatiboa egiten du. Portzentaia hain txikia izanda, neurri honekin ados ez daudenen profila jakitea zaila da.


Portzentaia haundiago batek, %11ak, neurri hau ez nahikoa dela uste du. Ikusi daitekenez, eritzi honen aldekoen arteko kopurua haundituz doa denborarekin. Lehenengo ikerketak %3ak bakarrik uste zuen neurria ez nahikoa zela, 2000 urtekoan berriz, erantzunaren portzentaia hirukoiztu zen eta joera hau gaur egun arte mantendu egiten da, apur bat haundituz.

Hain polita den inguru hau babesa behar duela uste dutenen kopurua gero eta haundiagoa da. Bermeoko biztanleria da gehien bat hau uste duena. Adina, sexua eta ikasketa maila bezalako aldagaiek ez dute eraginik balorapen honetan.

3.2. Urdaibai Biosferako Erreserbaren babesa erregulatzen duen araudia dagoelari buruzko informazioa

Gero eta jende gehiagok daki Urdaibai Biosferako Erreserba moduan adierazi zuela UNESCOk eta honen babesa erregulatzen duen araudia dagoela dakitenen kopurua ere oso handia da. Ikerketa honetan **erantzun positiboak %83a** izan dira, 2000 urtean berriz, %82^a. Bi hauek oso altuak dira 1995 urteko %37arekin konparatzen badugu.

5. Grafikoa. Urdaibairen araudiari buruzko ezagutza. 1995- 2005 urteak



Denborarekin alde honetan bizi den biztanleria gero eta argiago dauka babes berezia duen inguruan bizi dela. Bereziki 1995 eta 2000 urteen artean informazio maila asko handitu zen eta hortik aurrera mantendu egin da.

Horrela, %17ak ez du ezagutzarik araudi honi buruz. Aurreko ikerketetan bezala, gazteria da interes gutxien daukana araudiaren existentziari buruz eta emakumeek ere gizonek baino informazio gutxiago dute.

Bestalde, herri txikienetan bizi direnak izan dira informazio gehien dutela adierazi dutenak. Galdeketa honetan, baserri eta kostaldean galdetutakoen artean ia gehienek adierazi dute araudia dagoela badakitela.

3.2.1. Araudiari buruzko eritzia

Araudia dagoela dakitenek, gero eta irrotasun haundiagoarekin adierazten direla ikus daiteke. 1995 urtean ia galdetutakoen erdia gai honetaz eritzirik ez zutela esan bazuten, oraingo ikerketan portzentaia hau %16ra jeitsi da. Bereziki araudi honen aurka daudenen kopurua haunditu da, bai gehiegi murrizteagaitik baita ez- nahikoa izateagaitik, hau da, eritziak polarizatu egin dira.

2.6. Kuadroa

BIOSFERA ERRESERBAREN LEGERIAREN GAINEKO IRITZIA. 1995-2005 URTEAK.			
Portzentaia bertikalean			
	1995	2000	2005
Positiboa	19	25	27
Murrizgarria	21	18	29
Ez nahikoa	15	16	22
Ez daki	45	34	16

1995 eta 2000 urteen artean araudia positiboa uste zutenen kopurua haunditu zen eta 2005 urtean apur bat haundiagoa da, baina ez asko, hau da, %27^a. Lege babeslea egotea positiboa dela uste dutenen gehiengoa Gernikakoak dira, gazteria da legedi hau postiboki gehien baloratzen dutenak eta baita ikasketa maila altukoak.


Araudi hau gehiegi murrizten duela uste dutenen kopurua asko haunditu da, 2000 urtean %18tik, **%29 batera pasatu da**. Gehienak etxebizitzak eraikitzeko orduan dauden arazoengaitik uste du murrizgarria dela.

Aurreko ikerketetan bezala, baserri eta kostaldean da legedia gehiegi murrizten duela uste dutenen kopururik haundiena. Alde honetan galdetutakoen ia erdiak erantzun du zentzu honetan. Beste aldagaiak eragin gutxiagoa dute, nahiz eta adin nagusiko pertsonak eta ikasketa maila txikien dutenak izan zentzu honetan erantzuten dutenak eta emakumea edo gizona izateak ez du eraginik.

Araudi hau ez nahikoa dela uste dutenen kopurua ere haunditu egin da, hau da, aurreko erantzunaren aurkako zentzuan. Eritzi hau dutenen kopurua haundituz doa urteetan zehar baina era jarraitu batean, 1995ean %15 izan bait zen, 2000 urtean %16 batera igon zen eta 2005ean %22^a izan dira. Kritika gehienak, modu masibo eta diskriminaziorik gabe eraiki dela izan dira. Bermeon berriz ez nahikoa dela uste dute gehienek, hau da, galdetutakoen heren batek hau uste du, 30 eta 54 urtekoek araudia ez nahikoa dela uste dute eta baita maila altuko ikasketak burutu dituztenak ere.

Eritzirik ez dutenak %16^a dira, gehienak gazteak dira, Gernikan bizi dira eta emakume gehiago daude araudi hau baloratzen ez dutenen artean.

3.3. Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren Ugazaberiari buruzko informazioa



Patronatoa existitzen dela gero eta jende gehiagok daki. Gaur egun populazioaren **%76 informazio hau du**, 1995 urtean %36^a eta 2000 urtean %64^a ziren bitartean.

Hala ere, galdetutakoen artean, laurden batek informazio hau ez zuela adierazi zuen eta gehien bat etxeko andreak eta ikasleak dira.

Patronatoa existitzen dela dakitenen artean, **hamarretik hiruk**, hau da, %29ak, **komunikabideen bidez** jakin duela adierazi du. Aurreko ikerketetan bezala, telebista, egunkaria eta irradia izan dira informazioa jasotzeko biderik garrantzitsuenak. Bermeoko biztanleak, komunikabideak gehien aipatu dituztenak izan dira. Baita 30 eta 54 urtekoak ere, gizonak emakumeak baino gehiago eta ikasketa maila bajua zein altua dutenek ere.

1995 urtean komunikabideak %20ak aipatu zituen eta 2000 urtean egindako ikerketan %31ak.

Ugazaberiaren existentzia jakiteko gehien aipatutako bigarren bidea **giza-harremanak** izan dira, **%27ak** erantzun hau eman du. 2000 urtean %45^a izan ziren eta 1995 urteko ikerketan galdetutakoen artean hamarretik bik kalean jakin zutela adierazi zuten.

Ugazaberia lagunen arteko elkarrezketetan asko aipatzen den gaia da, bereziki herri txikietan eta 55 urte baino gutxiagokoen artean. Adina, sexua eta ikasketa maila bezalako aldagaiek ez dute eraginik.


Galdetutakoen **laurden batek Administrazioaren** bidez informatu zela adierazi du. Urteetan zehar, milaka arrazoiengaitik jende askok harremana izan du Ugazaberiarekin. 1995 urtean %7ak adierazi zuen ugazaberiaren existentziak administrazioaren bidez jakin zuela eta portzentaia hau %9ra igo zen 2000 urtean.

Denboran zehar, galdetutakoen artean hamarretik ia bi Ugazaberiaren instalazioetara joan dira. Hona joateko arrazoiak ezberdinak izan dira: aholku bila, gehien bat hirigintza gaien inguruan, baita hitzaldietara, erakusketetara edo dokumentazio zentrura.

Ugazaberiaren instalazioetara doazen gehienak gazteak dira, lehenengo mailako ikasketak gainditutakoak, baserri eta kostaldean bizi dira eta gizonak emakumeak baino gehiago.

%11ak publizitatea aipatu du Ugazaberiaren existentzia ezagutzeko

bide moduan. Baliabide hau geroz eta jende gehiagorengana heltzen da, 2000 urtean %6ak erantzun zuen zentzu honetan eta oraingo ikerketan portzentaia hau ia bikoiztu egin da. Ikasketa maila altua eta gazteak dira bide hau gehien aipatu dutenak eta beste aldagaiek ez dute eraginik erantzun honetan.




Galdetutakoen artean **hamarretik lauk** etxean Urdaibai Biosferako **Erresebari buruzko dibulgaziozko materialen** bat etxean dutela adierazi dute. Egutegiak, mapak, liburuak, liburuxkak eta klaseko apunteak aipatu dituzte.

Aldeak kontutan hartuta, herri txikietako pertsonak, adin ertainekoak, unibertsitateko ikasketekin, kualifikazio hobeak dituzten lanak egiten dituztenak dira material hauek gehien aipatu dituztenak.

3.3.1. Ugazaberiari buruzko eritzia

2000 urtean egindako ikerketak adierazi zuenez eta 1995 urtekoarekin konparatuz, eritziak egonkortzen doaz. Horrela, **balorapen positiboa**, gehien ematen dena da, oraingo ikerketan **%40ra** heltzen da, hau da, 2000 urtean baino apur bat gutxiago, %42koa izan zela. **Eritzi negatiboak** apur bat gehiago eman dira oraingoan, 2000 urteko %13tik aurtengo **%15era**. Eritzirik ez duten pertsonen kopurua mantendu egiten da, hau da %32 2000 urtean eta %33^a 2005ean eta azkenik beste erantzun batzuk agertzen dira %12an.

6. Grafikoa. Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren Ugazaberiari buruzko eritziak. 2000- 2005 urteak



Balorapen positiboak gehien bat Gernikan ematen dira, hau da, galdetutakoen artean erdiak eman du erantzun hau. Herri txikietan bizi direnen artean Ugazaberiari buruzko eritziak hobetu egin dira ere.

Deskontentu portzentaia txikiagoa izan arren, %15^a, interesgarria da jakitea nondik datozen eritzi negatibo hauek. Oraingo ikerketan, Bermeon bizi direnak izan dira gehien bat zentzu honetan adierazi direnak. Aurreko ikerketetan, ugazaberiarenganako poztazun gehiago agertzen zen.

Ugazaberiari buruzko eritzi negatiboak dituzten pertsona gehienek, Erreserba babesten duen araudia ez- nahikoa dela uste dutela aipagarri da. Bermeon horrela pentsatzen dutenen portzentaia haundia da, nahiz eta beste herrietan ere egon. Ugazaberiaren kudeaketa kritikatzeko dutenen artean ere araudia gehiegi murrizten duela pentsatzen dutenak daude. Baina gehien bat, eritzi negatiboak UNESCOk egindako adierazpenaren aurkakoak direnak egiten dituzte, nahiz eta laginaren tamaina oso adierazgarria ez izan.

Beste eritzi batzuk eman dituztenen artean, gehien bat neurri desberdinetako bidegabekeriak aipatzen dituzte, adibidez, *“batzuntzako legiak, beste batzuentzako ez”, “batzuk eraiki dezakete eta beste batzuk ez”* edo *“enchufismo”*. Baina badaude beste batzuk hau esaten dutela: *“Erreserba hobeto funtzionatu dezan baliabideak falta dira”* edo *“turismoan gehiegi pentsatzen dute”*.

Galdetutakoen heren batek ez du eritzirik. Hauen profila honako hau da: gaztea, 30 urte baino gutxiago dutenen erdiak horrela erantzun du, ikasten edo langabezian dago eta bizitzeko aldeak kontutan hartuta, Gernikan batz bestekoa gainditzen dute.

Atal honetan, Urdaibain bizi direnen artean hamarretik bederatzik UNESCOk inguru hau Biosferako Erreserba moduan deklaratu zuela dakitela garrantzitsuena da. Geroz eta gehiago, jendeak adierazpen hau positiboa dela uste du, hau da, galdetutakoen hiru laurdenak horrela uste du. Neurri hau ez nahikoa dela uste dutenen portzentaia haundituz do aeta bakarrik %5ak baloratzen du modu negatibo batean.

Nahiz eta portzentaia txikiago batean, hamarretik ia zortzik jakin inguru honetan hartzen diren erabaki gehienak araudi batek erregulatzen dituela. Araudi honi buruzko balorapena banatu egiten da ia alde berdinetan, positiboa, gehiegi murrizten duela edo ez- nahikoa dela uste dutenen artean. Azken bi hauek gero eta gehiago ematen dira eta aurreko ikerketetan eritzirik ez zutenen kopurua gutxituz doa.

Urdaibia Biosferako Erreserba kudeatzen duen Ugazaberia gero eta ezagunagoa da inguruan bizi direnen biztanleen artean, jadanik galdetutakoen hiru laurdenek ezagutzen dute. Honek jasotzen duen balorapena mantendu egin da azken urteetan. Hamarretik lauk positiboki baloratzen duten bitartean, heren batek ez du eritzirik eta %15ak modu negatibo batean baloratzen du honen kudeaketa. Azkenik %12ak beste mota bateko komentarioak egin ditu.

Denboran zehar, Ugazaberia existitzen denetik, galdetutakoen artean hamarretik bik honen instalazioetan egon direla adierazi dute. Aholku eske, hitzaldiak entzuteko, erakusketak ikusteko eta abar.


Galdetutakoen artean hamarretik lauk beraien etxean Erreserbari buruzko dibulgaziozko materialen bat dutela adierazi dute: liburuxkak, egutegiak, mapak eta liburak modukoak.

Urdaibain bizi den biztanleriak gehien bizi dituen arazoak

4. Urdaibain bizi den biztanleriak gehien bizi dituen arazoak

Aurreko ikerketetan bezala, oraingoan ere, urdaibai inguruan bizi ziren arazorik garrantzitsuenak esatea eskatzen zitzaaien galdetutakoei.

7. Grafikoa: Urdaibain bizi diren arazoak. 1995-2005 urteak



Gehien ematen diren arazoak **ingurugiro**arekin lotuta daude: eraikitze masiboa, errekaren kutsadura, trafikoa, masifikazioa udan, Inama enpresak askatzen duen kea Muxikan eta Gernikan dagoen zarata. **%35**ak arazo hauek komentatu ditu.

%32ak **ez du arazorik komentatu**, existitzen ez direla edo garrantzitsuak ez direla uste duelako, ezagutzen ez dituelako edo erantzuten ez duelako. %12a administrazioarekin dauden gatazkak komentatu ditu, pertsona batzuekin duten gehiegizko tolerantziagaitik, debekuntzengaitik edo neurri ezberdinetako bidegabekeriengaitik.

%11ak arazo ekonomikoak komentatu ditu (langabezia, baserrigintza uested, arrantza uested, etxebizitza falta eta abar...) eta antzeko proportzioan, **%10ak ekipamendu falta** aipatu du. Beste erantzunetan portzentaiak antzekoak izan dira.

Ingurugiroan eragina duten arazoan artean gehien komentatu dena **eraikitze masiboa** izan da. 1991 urtean, Urdaibain 18.622 etxebizitza



zeuden eta hamar urte beranduago, 20.516 (ikus eranskinetako 4.1 kuadroa), hau da, ia 1900 gehiago eta 2001 eta 2003 urteen artean, beste 700 etxebizitza berri eraiki ziren (ikus eranskinetako 4.1 kuadroa).

Etxebizitza berri asko ikus daitezkeen arren, urdaibain modu egonkor batean bizi den biztanleriaren bolumena txikiagoa da. 1900 eta 2004 urteen artean 400 biztanle galdu dira. Inguruko herri haundienak dira biztanlean galtzen dituztenak (Bermeo, Gernika, Busturia, Muxika) eta txikiak irabazten dituzte, hau da, Ajangiz, Murueta, Forua,

Gautegiz, Arteaga, Gernikatik hurbil daudenak (ikus 4.2. eranskina).

Etxebizitza bakoitzean bizi den jende kopurua ere gutxitu egin da. 1991 urtean, bataz besteko 3,3 pertsona bizi ziren etxe bakoitzean eta 2001 urtean, bataz bestekoa 2,8koa zen (ikus 4.3 eranskina). Era berean, gero eta pertsona bakarreko familia gehiago dago gune honetan; 1991n 1.702 ziren eta gaur egun 3.201 dira. (ikus 4.4. eranskina).

Igoera hori Bizkaiko Lurralde Historikoan ere ematen da eta, oro har, mendebaldeko gizarteen joera dela esan daiteke. Bakarrik bizi direnen kopuruak gora egiten du biztanleriaren zahartzea dela eta. Izan ere, pertsona bakarreko familiak gehienbat emakume alargunei dagozkie.

Ingurugiroarenganako erasoen aurrean zentzibilizazio berezia dago Gernika eta Bermeo bezalako herri haundienetan, jende gazteenaren artean, maila altuko ikasketak unibertsitatean edo profesionalak, ikasleak eta kualifikazio haundiagoa duten pertsonen artean. Inguruko ingurugiroaren egoera erregularra edo txarra dela uste duteneak, araudia ez nahikoa dela uste dutenak, eta orokorrean Urdaibaiko Ugazaberiak eritzi positiboak dutenak, guzti hauek dira ingurugiroaz ardurak gehien azaltzen dutenak.

Arazorik komentatu ez dutenek, lehen esan den bezala, galdetutakoen heren bat dira, ez dute profil jakin bat. Gehien bat biztanleria gehien dagoen herrietan agertu dira, Bermeo eta Gernika bezala, eta ez dute eritzirik araudiari eta Ugazaberiari buruz.

Hirugarren lekuan, **administrazioarekin harremanetan dauden arazoak** agertzen dira. Kasu honetan, gehien bat herri txikietan bizi direnak dira. Arazo honetaz hitzegiten duten hamar pertsonetatik, zazpi baserri eta kostaldekoak dira. Arazo hau gehien komentatzen dutenak adin nagusikoak eta ikasketa maila txikiagoko pertsonak dira. Modu honetan erantzun dutenen gehiengoak positiboak dira ingurugiroaren egoerari buruz, baina araudia negatiboa dela uste dute eta Ugazaberiak eritzi negatiboa dute.

Komentatu den bezala, antzeko portzentaia batean, **%11 arazo ekonomikoak** azaldu ditu. Gehien bat langabezia, baserriko eta arrantzako sektorean krisia, industrializazioaren amenera komentatu dituzte. Sustarpen publikoko etxebizitzaren eskasia eta gazteentzako etxebizitza falta ere komentatu dituzte. Pertsona nagusiak baserri aldean bakarturik geratzen ari direla arazo moduan ere aipatu dute.

Langabeziari dagokionez, gaur egungo langabezi tasa duela bost urtekoarekin konparatzen badugu, gutxi aldatu direla esan dezakegu. Bermeo eta Gernika bezalako tamaina haundiagoko herrietan, egoera ia berdina mantendu egiten da, %7 inguru, eta Mendata eta Errigoiti bezalako tamaina txikiagoko herrietan berriz lan eskatzaile bezala agertzen diren pertsonen kopurua haunditu egin da eta Nabarnizen kontrakoa gertatu da, baina bi kasuetan biztanle bolumena txikia da. (ikus eranskinen 4.5. kuadroa)

Oraingo ikerketan, galdetutako pertsonak beraien jardueraz egin dute definizioari dagokionez, langabezia tasa %9koa da eta 2000 urtean, langabezian zeuden pertsonak, metodo berdina erabiliz, %13,5koa zen.

Arazo ekonomikoak gehien komentatu dituztenak adin nagusiko pertsonak, ikasketa maila txikiak, etxeko andreak, pentsiodunak eta langabezian daudenak izan dira. Beste aldagaiek ez dute eraginik izan.


Azkenik, antzeko portzentaia batean, %10^a **ekipamendu edo baliabide falta** komentatu dituzte, adibidez, garraiobidea, errepideak, birziklatzeko zaborrontzi falta, gazteentzako leku falta komentatu dituzte.

Ekipamendu eta baliabide faltengaitik gehien kezkatzen direnak Gernikakoak dira, gazteak dira, ikasleak eta ikasketa maila erdikoak.

4.1. Inguruko egoera ekonomikoaz egiten den balorapena

Aurreko ikerketetan bezala, honetan ere, inguruan bizi diren pertsonen Urdabaiko egoera ekonomikoaz duten pertzepzioari buruz aztertu da.

8. grafikoa. Egoera ekonomiko. 1995- 2005 urteak



2000 emandako erantzunak oraingoan emandakoekin konparatzen badugu, inguruko egoera ekonomikoa **okerrera joan dela** uste dutenen kopurua haunditu dela ikus dezakegu. Galdetutakoen artean **hamarretik ia lauk** eritzi hau dute, 2000 urtean hamarretik ia hiru ziren bitartean.

Diferentzia hau ia osoki egoera **hobetu dela** uste dutenen erantzunera pasatu da. 2000 urtean galdetutakoen laurden bat bazen oraingo ikerketan **%13**ra jeitsi da.

Egoera ekonomikoa betiko modukoa dela edo honen inguruan eritzirik ez dutenen **kopurua mantendu egin da**. Galdetutakoen heren batek **ez dute aldaketarik** nabaritzen egoera ekonomikoan, ez dakitenak %10 inguru diren bitartean, %14 konkretuki 2005 urtean.

%38ak egoera ekonomikoa **okerrera jo duela** dio. Hautemate hau gehien bat Bermeon ematen da, emakumeak gizonak baino gehiago, adin nagusiko pertsonak eta ikasketa maila haundiago dutenen artean ematen da. Lanbideari dagokionez, etxeko andreak, langabezia daudenak eta pentsiodunak dira gehien uste dutenak. Baina eritzi hau ere erdi mailako ogibideak dituztenen eta artisautza moduan definitzen direnen artean zabaltzen dira, hau da, jabego txikiak dituztenak, baserritarrak eta abar..

Urdaibaiko Biosferako Erreserbaren adierazpenaren aurka daudenen artean, hamarretik zortzi inguruko egoera ekonomikoaz ikuspegi negatiboa dute, baina baita hau ez nahikoa dela uste dutenek, baina lehenengo taldea baino gutxiago.

Babes berezia behar duen aldea denez, garapen ekonomikorako aukerak gutxiagoak direla uste dutenen kopurua mantendu egiten da, 2000 urteko ikerketan adierazi zen bezala.

Langabezi tasak mantendu egiten direnez 2000 eta 2005 urteen artean, oinarrizko zerga jasotzen duten familien kopurua haunditu egin da. *Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Departamenduaren 2004ko Memorian* adierazi bezala, Bermeon urte horretan, 224 familiek jaso zuten laguntza hori, 1999 urtean 75k jaso zuten bitartean. Gernikan berdina gertatzen da: 2004 urtean 234 familiek jaso zuten laguntza hori, aurrekoan 55ek jaso zuten bitartean eta baserrialdean eta kostaldean, 28 familiek jaso zuten laguntza hori eta 2004 urtean 122k jaso zuten.

Gizate bazterketaren aurkako legeak izan dituen aldaketa, kolektibo berriek laguntza hau jaso dezaten lagundu du (23 urteko gazteek eta 65 urte baino gehiago dutenek). Mota honetako laguntza ekonomikoak, lan-prekarietaterako egoeratan gizarte babeserako azken sarea dela komentatu beharra dago. 2004 urtean, Urdaibaiko Biosferako Erreserbako familien %4ak mota honetako laguntza ekonomikoa jaso dute.


Bigarren lekuan egoera ekonomikoa berdin **mantentzen dela** uste dutenak daude. Hauek **%34^a** dira, 2000 urteko ikerketan lortu zen portzentaiaren antzekoa. Horrela pentsatzen duten pertsonak ez dituzte ezaugarri definituak, nahiz eta gizonak, 54 urte baino gehiago dituztenak eta Bermeon bizi direnak izan eritzi hau gehien ematen dutenak.

Egoera ekonomikoa **hobetu dela** uste duen taldea, **%14^a** dira, baserri eta kostaldean bizi direnak dira gehien bat, gazteak dira eta erdi mailako ikasketak dituzte. Inguru hau Biosferako Erreserba izatearen aurrean eta babesten duen araudi bat egoteaz eritziarik ez duten pertsonak dira. Balorapen hau egiterako orduan ez dago ezberdintasunik gizon eta emakumeen artean.

4.1.1. Norberaren egoera ekonomikoaren balorapena

Galdetutakoen ia bi herenek beraien egoera ekonomikoa berdin mantendu dela uste dute. Bigarren postuan okerrera jo duela uste dutenak daude, hamarretik ia bik, 2000 urteko ikerketan lortutako ia datu berberak. Urte horretan %20^a egoera modu positibo batean ikusten zuen bitartean, oraingo ikerketan %14ak bakarrik uste du bere egoera ekonomikoa hobetu egin dela.

9 Grafikoa. Norberaren egoera ekonomikoa. 1995- 2005 urteak



Beraien egoera ekonomikoa aldatu ez dela uste dutenak, gehienak 54 urte baino gehiago dituzte, Gernikan bizi dira, pentsiodunak dira, ikasketa maila bajukoak dira. Maila haundiko lanak dituztenek ere eritzi hau dute. Emakume eta gizonen artean ez dago garrantzizko ezberdintasunik. Urdaibaiko egoera ekonomikoa berdin jarraitzen duela uste dute.

%19arentzat bere egoera ekonomikoa okertu egin da. Modu honetan azaltzen diren pertsonen profila honako hau da: langabezian daude, etxeko andreak dira, artisautzan egiten dute lan (jabego txikiekin, beraien kabuz lanean, baserritarrak, eta abar). Gehiago ematen da Bermeotarren artean eta inguruko egoera ekonomikoa okertu dela ere uste dute. Sexua, adina eta ikasketak maila bezalako aldagaiek ez dute eraginik honetan.

Bestalde, %14ak uste du bere egoera ekonomikoa hobetu dela. Hauek pertsona gazteak dira, unibertsitate mailako ikasketak dituzte, erdi mailako lanak edo lan kualifikatuak dituzte eta bereziki herri txikietan bizi dira. Hauek ere uste dute inguruko egoera ekonomikoa hobetu egin dela.

Norberaren bizitza maila definitzeko orduan, inguruan egin diren ikerketetan ikus daiteke nola galdetutakoek beraien egoera ekonomikoa erregularra dela uste duten. Baina hamar urte hauetan, gero eta pertsona gehiagok esaten dute **beraien egoera ekonomikoa ona dela**, oraingo ikerketan **%39** izan da. Duela hamar urte, portzentaia hau hamar puntu txikiagoa zen. Alderantziz ere, gero eta pertsona gutxiagok definitzen dute beraien egoera ekonomikoa **txarra** bezala, oraingo ikerketan **%11**ak, duela hamar urte ia bikoitza izan zen bitartean.

	1995	2000	2005
Ona	%29	%32	%39
Erregularra	%53	%53	%50
Txarra	%18	%15	%11
	%100	%100	%100

Oharra: 1995 eta 2000 urteetan portzentaia txiki batek "ez du erantzuten/ez daki" erantzun zuen eta oraingoan portzentaia hori beste erantzunen artean banatu da 2005 urtearekin konparatu ahal izateko.

Eskualde eta herri mailako egoera ekonomikoaren adierazle bat errenta gordin per capita baten bidez egiaztatu daiteke. 2001 urtean, Eustaten Norbera eta familiaren errentaren estatistikaren arabera, Gernika-Bermeo eskualdearen errenta Gordón per capita 9814 eurotan kokatzen zen, Bizkaiko Lurralde Historikoarena berriz 10571 zen. Hala ere, bazeuden herri asko Sukarrieta, Gautegiz- Artea, Murueta eta Ibarrangelu bezala, 11000 euroak gainditzen zutenak. (ikus eranskineko 4.6 kuadroa)

Beraien egoera ekonomikoa ona bezala definitzen duten pertsonak gehien bat Gernikakoak dira eta baita herri txikietakoak ere. Gernikan, ia populazioaren erdiak beraien bizi kalitatea ona dela uste dute. Gizonak emakumeak baino baikorragoak dira eta berdin gazteak adin nagusikoak baino. Ikasketa maila kontutan hartzen badugu, lehenengo mailako ikasketak gainditzen dituztenak dira baikorrenak eta lanari dagokionez, goi- mailako lanbideak betetzen dituztenak, lanbide kualifikatuak dituzte eta baita ikasten dutenak ere.

Estatus egokia duen taldearen aspekturik adierazgarrienak hauek dira: Urdaibai Biosfera Erreserbaren ingurugiro egoera ona dela uste dute, batzbestekoa baino produktu ekologiko gehiago kontsumitzen dituzte eta administrazioa, talde ekologistak eta irakasleak ingurugiroa babesteko lan gehien egiten duten taldeak direla uste dute.

Inguruaren babesa erregulatzen duen araudiari buruzko eritzietan ia bi talde berdinetan banatzen dira: batzuk positiboa dela uste dute eta besteek negatiboa.

Ugazaberiari dagokionez, balorapen positiboak negatiboak baino gehiago dira. Nahiz eta galdetutakoen artean honen instalazioan gutxi egon diren, %20a, hauetan noizbaiten egon direnen gehiengoa bizitza maila ona dute. Inguruaren egoera ekonomikoari dagokionez, hobetu dela uste dute. Hau uste dutenen portzentaia txikia da, %14a eta gehiengoak aurreko talde honetakoak dira.

Alderantziz, **estatus ekonomiko txikia** dutenen artean, guztiaren %11^a dira, gehienak Bermeon bizi dira. Emakumeak gizonek baino gehiago definitzen dute beraien egoera ekonomikoa baxua bezala eta pertzepzio berdina dute gazteek. Ikasketa maila kontutan hartzen bada, unibertsitate mailako ikasketak izan ditzakete eta baita lehen mailakoak bakarrik. Lana bilatzen dabiltzanak dira beraien egoera ekonomikoa pobrea bezala definitzen dutenak. Langabezia dauden artean heren batek definitzen du bere egoera ekonomikoa txarra bezala. Ikasle askok ere horrela definitzen dute beraien bizi maila, etxeko andreak bezala, batz bestekoa gainditzen dutela.

Iraunkortasunarekin harremanetan dauden beraien bizitza azturei dagokionez, garraiabide publikoa batzbestekoa baino gehiago erabiltzen dutela garrantzitsuena da. Beste neurketetan ez dira nabarmentzen, ingurugiroa babesteko ezer ez dutela egiten esaten dutenak izan sheik, hauek oso gutxi dira. Kasu honetan, beraien burua maila baxukoa bezala definitzen dutenek portzentaiaren heren bat betetzen dute, hau da, talde sozioekonomiko honen gainordezkatzeko bat ematen da.

Galdetutakoen erdiak beraien **egoera ekonomikoa erregularra** bezala definitu du. Erantzun hau gehien bat Bermeon ematen da, 54 urte baino gehiago dutenen artean, ikasketa maila baxuarekin eta gehien bat pentsiodunak eta artisautsa taldekoak.

Ingurugiroaren babeserako egiten dutenari dagokionez, maila ekonomiko honetan daudenen gauzarik garrantzitsuena, ura eta energia aurrezten saiatzen direla eta udaleko produktuak kontsumitzen dituzte. Ingurugiroaren babeserako izendatutako beste neurrietan ez dira bereziki ezberdintzen.


Urdaibai Biosfera Erreserbaren deklarazioari eta bere gestioa erregulatzen duen araudiari dagokionez, bi kasuetan neurri ez nahikoak direla uste dute eta portzentaia haundi batek ez du eritzirik araudiari buruz. Ugazaberari dagokionez, koletibo honen portzentaia haundi batek eritzi negatiboa adierazten du.

Beraien burua giza talde honen barruan ikusten dutenek, inguruko egoera ekonomikoa berdin mantetzen dela uste dute, beraien egoera ekonomikoa okertu den bitartean edo eritzirik ematen ez duten bitartean.

4.2. Udal- ekipamenduei buruzko eritzia

Aurreko ikerketetan bezala, hau Biosferako Erreserba bat izatean, bizi kalitatearekin harremanetan dauden beste aspektu batzuei buruzko eritzia ere jakin nahi izan da. Horrela, udaleko ekipamenduei buruzko eritzia galdetu da.

10. grafikoa. Udal- ekipamenduei buruzko eritzia



Oraingo ikerketan balorapen positiboak gutxitu direla ikus daiteke. 2000 urtean eta boste lehenago, galdetutakoen artean heren bat udaleko ekipamenduekin **asetuta** bazegoen, oraingoan erantzunen **laurden bat**.

Beste alde batetik, egoera **erregularra** bezala definitzen dutenen pertsona kopurua haunditu egin da. Gaur egun hau da gehien ematen den erantzuna, **%42^a**, 2000 urtean portzentaia %35ekoa izan zen bitartean, nahiz eta 1995ean ere erantzunak %41^a lortu.

Egoera **ase gabea** definitzen dutenak eta eritzirik ez dutenak duela bost urte bezala mantentzen dira, **%23^a** eta %10^a.

Udaleko ekipamenduen egoerarekin pozik daudenen profila honako hau da: baserri eta kostaldean bizi dira eta baita Gernikan ere, adin nagusikoak dira, ikasketa maila baxua dute, etxeke andreak dira eta pentsiodunak.


Alderantziz, honekin ados ez daudenak, aurreko portzentaiaren antzekoa, **%23^a**, gehienak Bermeon bizi dira, gazteak dira, ikasketa maila ertaina dute, ikasleak edo erdi mailako lanak egiten daudenak. Kasu honetan, gizonak kritikoagoak dira egoerarekin emakumeak baino.

Azkenik, portzentaiarik haundiena, udaleko ekipamenduen egoera erregularra dela uste dute. Erantzun hau ematen duten pertsonak Bermeon bizi dira gehienak, emakume gehiago gizonak baino, 30 eta 54 urte artekoak dira eta asko etxekeandreak dira edo eta beraien kabuz egiten dute lan, baserritarrak, laguntza familiarra... Balorapen hau egiteko orduan ikasketa mailak ez du eraginik.

4.3. Eskualdeko ekipamenduei buruzko eritzia

Aurreko ikerketan bezala, eskualdeko ekipamenduei buruzko eritzia ere jakin nahi izan da.

11. grafikoa. Eskualdeko ekipamenduei buruzko eritzia. 1995-2005 urteak



Gehiengoak, **%34**, egoera **erregularra** dela uste du. Portzentaia hau 2000 urteko ikerketan lortutako %28^a baino haundiagoa da. Portzentaia hau haunditu da erantzun **positiboak** gutxitu diren bitartean, duela bost urte %27 izan zen eta oraingoa **%23^a**.

Alderantziz, erantzun asegabeak **mantendu egiten dira** (%17^a 2000 urtean eta %16 2005 urtean) eta eritzirik ez dutenen kopurua %27^a izan da.

Aldeak kontutan hartuta, herri txikietan bizi direnak dira erantzun positibo gehien ematen dituztenak. Bermeon, eskualdeko ekipamenduen egoera erregularra dela uste dutenen portzentaia batzbestekoa baino haundiagoa da eta hemen ere erantzunik eman ez dutenen gehiengoak agertu da. Erantzun negatiboak hartzen baditugu kontutan ez dago ezberdintasunik aldean artean.

Sexua, adina, ikasketa maila edo lana bezalako aldagaien eragina hau da: emakumeek eskualdeko ekipamenduak modu positiboago batean baloratzen duten bitartean, gizonek hauen egoera erregularra bezala definitzen dute.

Adin nagusiko emakumeek dira eskualdeko ekipamenduei buruz eritzi positiboena dutenak, alderantziz, gazteak dira eritzi kritikoenak ematen dituztenak. Ikasketa maila gero eta baxuagoa izan, eritzia positiboagoa da eta alderantziz, ikasketa gehiago egin dituztenak eritzi kritikoagoak dituzte.

Udaleko ekipamenduei buruzko eritzia galdetzean gertatzen zen bezala, oraingoan ere etxeakoandreak eta pentsiodunak dira asetuen sentitzen direnak eskualdeko ekipamenduekin. Erdi mailako lanbideak eta ikasleak dira eritzi kritikoenak dituztenak.

Azkenik, honi buruzko eritzirik ez dutenen profila hau da, portzentaia haundia dira, %27: gazteenak edo adin nagusikoak, ikasketa maila baxua, etxeako andreak, langabezian daudenak edo jubilatuak.

Urdaibai Biosferan bizi direnen arazorik sentituenak ingurugiroaren aurkako erasoak dira, galdetutakoen heren batek eraikitze masiboa, hondartzen masifikazioa, trafikoa eta abar aipatu ditu. Gero eta antzeko portzentaia batean, edo ez dute arazorik ikusten edo ez dakizkite hauek definitzen.

Portzentaia txikiago batean, %10ean, administrazioarekin gatazkak aipatu dira, hau da, inguruaren gestioa eta gehien bat eraikuntzari buruzko politikarekin ados ez egotea eta portzentaia berean, arazo ekonomikoak eta ekipamendu falta.

Urdaibaik bizi duen egoera ekonomikoari buruz egiten duten balorazioari dagokionez, hamarretik ia lauk okertu dela uste dute edo berdin jarraitzen duela, %34ak. Duela bost urte zuten pertzepzioarekin konparatzen badugu, okertu dela uste dutenen portzentaia haunditu da eta hobetu dela uste dutenen kopurua txikitu da, bakarrik %14k du eritzi hau.

Beraien egoera ekonomikoari buruz galdetzen bazaie, gehienek berdin jarraitzen duela uste dute, %64^a, besteak ia parte berdinetan banatzen dira okertu dela %19 eta hobetu dela uste dutenen artean, %14^a. Beraien egoera ekonomikoa ona dela uste dutenen portzentaia haunditzen joan da, txarra dela uste dutenen kopurua gutxituz doan bitartean eta erregularra uste dutenen kopurua mantendu egiten da.

Udaleko ekipamenduei buruz egiten duten balorapenei dagokionez, ia erdiak bakarrik uste dute erregular moduan baloratu daitezkeela. Portzentaia hau haunditu egin da 2000 urteko ikerketako portzentaiarekin konparatzen badugu. Eritzi ona dutenen kopurua gutxituz doan bitartean, oraingoan galdetutakoen laurden batek erantzun du sentzu honetan duela bost urteko herenarekin konparatzen badugu.


Eskualdeko ekipamenduei buruzko balorapena kontutan hartuta, gehiengoak, %34ak asegabe moduan baloratzen du. Bigarren maila batean eritzirik ez dutenak daude, %27ak. %23ak bere asetasuna adierazten duen bitartean, %17^a ez dago ados.

Urdaibai- aldearen aspektu positiboak

5. Urdaibai- aldearen aspektu positiboak

Aurreko ikerketetan bezala, oraingoan ere Urdaibairen aspektu positiboak zeintzuk diren.

12. grafikoa. Urdaibairen aspektu positiboak. 1995-2005 urteak



Urdaibain bizi direnek **paisaiaz, inguru naturalaz** edo honen aspektu batzuetaz kostaldea, hondartza, itsasoa eta abar modukoetaz duten mirespena oso altu mantentzen da. Galdetutakoen gehiengoek elementu natural hauek aipatu dituzte. Pertsonen **%56ak** eman ditu mota honetako erantzunak. Aurreko ikerketetan ere elementu hauek aipatu zituen populazioren %54ak eta 1995ean portzentaia %46koa izan zen.

Ondoren lasaitasuna, **giroa edo eta gendearen arteko harremanak** aipatu dira. Galdetutakoen **%21ak** aipatu du hauetariko baten bat, 2000 urtean antzeko portzentaia batek eman zuen erantzun mota hau, %20ak.

Proporzio txikiago batean, **%17ak**, **ingurugiroa babesteko** egiten den ahalegina aipatu dute. Portzentaia hau asko haunditu da 2000 urtekoarekin konparatzen badugu, %9koa izan zela.

Azkenik, oso jende gutxi aipatu du **zerbitzu publikoren bat** inguruko aspektu positibo moduan, **%2ak** bakarrik. Pertsonaren batek Europa Parkea aipatu du.

Paisaiari balore gehien ematen diotenak Bermeon bizi direnak dira, gizonak emakumeek baino gehiago aipatzen dute, gazteak, ikasketa maila altukoak, ikasleak eta erdi mailako lanbideak egiten dituztenak.

Baserri eta kostaldean gehien aipatu dutena lasaitasuna eta giroa izan da, adin nagusiko pertsonak, ikasketa maila baxua dutenak, etxeko andreak eta pentsiodunak.

Ingurugirorako neurriak gehien baloratu dituztenen profila honako hau da: gehienak Gernikan bizi dira, gazteak, ikasketa maila altukoak eta lan kualifikatuak egiten dituzte edo ikasten dabilta.

5.1. Bizi diren lekuarenganako poztasuna

Ikerketa honetan galdetutakoen arteko poztasun maila apur bat haunditu da, aurretik ere poztasun maila oso haundia zelarik. Aurreko ikerketetan %96^a agertzen zen pozik eta oraingoan %97^a.

Poztasun hau agertzen dutenak ia galdetutako gehienak izateagaitik, ez dago inolako ezberdintasunik aldagaien bat kontutan hartuta.

Poztasun honen zergaitiak galdetzean, aurreko galderan komentatutako balore positiboak aipatu dituzte. Baten batek esan du: “ez dago leku hobeagorik bizitzeko” eta badaude beste batzuk beti bertan bizitzea dela poztasun horren zergaitia.

Aurreko ikerketetan bezala, portzentaia oso txiki batek, %5ak, pentsatu du beste leku batera joatea bizitzera urte bat baino gutxiagoko epean. Emandako arrazoiak lanarekin eta ikasketekin harremanetan daudenak izan dira.



5.2. Denbora librearen gozamina Urdaibain

Urdaibai aldea gune pribilegiatua da denbora librean ingurumenaz gozatzeko. 2000 urteko eta aurtengo ikerketetan, herritarren gehiengoak, %85ak beraien denbora librea ingurutik paseatzen ematen duela adierazi dute. Galdetutako guztietatik, %44ak gehienetan egiten duela adierazi du, %17ak asteburuetarako usten du eta laurden batek batzutan bakarrik paseatzen du.

13 grafikoa. Denbora librean egiten dituzten ekimenen araberako portzentaiazko banaketa

		Gehienetan	Asteburutan	Noizbaiten
Paseoak ingurutik	%85	%44	%17	%24
Gizarte harremanak	%81	%28	%29	%24
Etxean geratu	%65	%25	%4	%36
kirola egin	%56	%33	%5	%18
Zaletasunak egin	%50	%28	%3	%19
Ekimenak bere udalean	%47	%20	%4	%23
Gizarte parte hartzea	%35	%14	%3	%18
Udaletik kanpoko ekimenak	%32	%6	%4	%22

Oharra : Erantzun bat baino gehiago emateko aukera

Urdaibai ingurutik paseoak ematen beraien denbora librea gozaten dutenen gehiengoak baserri- kostaldean bizi dira, Bermeotarrek berriz asteburutan egiten dute. Emakume eta gizonen artean ez dago ezberdintasunik, baina adinak eragina du. Adin nagusiko jendeak gehienetan paseatzen duen bitartean, helduek asteburutan egiten dute eta gazteek noizbaiten. Ekimen hau gehien bat etxeko andreek eta pentsiodunak direnak egiten dute.

Ondoren, galdetutakoen gehiengoak denbora libreak gizarte harremanak mantentzen dituzte. **%81ak** bizitak, poteoa, afariak egiten dituzte. Ia kopuru berdinak ematen dira gehienetan, %28, asteburutan %29 eta noizbaiten %21 egiten dutenen artean. 2000 urteko ikerketan portzentaia haundiago bat elkartzen zen familia edo lagunekin asteburutan.

Aldeak kontutan hartuta, Gernikan gizarte harremanak gehiago ematen diren bitartean, Bermeon asteburuetarako usten dute eta baserri aldean da gutxien ematen den lekua.

Adin gehien duten pertsonak, beraien familia eta lagunekin gehien elkartzen direnak dira, batzbestekoa baino gehiago eta gazteek berriz asteburua erabiltzen dute honetarako. Hala ere, harremanak noizbehinka mantentzen dutenen artean gehien bat adin nagusiko pertsonak dira. Sexu aldagaia kontutan hartuz gero, ez dago ezberdintasunik.

Populazioaren bi herenak ere, beraien denbora librean etxean geratzen dira, baina gehiengoak, %36ak dio noizbehinka egiten duela eta bakarrik %4^a asteburutan geratzen da etxean. Adin gehien duten pertsonak eta herri txikietan bizi direnak, beraien denbora librean etxean geratzen direla gehien esaten dutenak dira.

%56ak kirolen bat egiten du. Galdetutakoen heren batek gehienetan egiten duela adierazten du eta 5ak asteburuan. Kirola gehienetan egiterako orduan, ez dago diferentziarik adinari dagokionez, nahiz eta asteburutarako usten dutenen gehiengoak gazteak izan. Gizonek kirola gehienetan egiten duten bitartean, emakumeek batzutan egiten dutela adierazten dute. Aldeak kontutan hartuta, Gernikarrak eta baserri aldean bizi direnak kirol gehien egiten dutenak dira.

Galdetutako en erdiak beraien denbora librea **zaletasunen bat**, eskulanak, baratzea edo lorezaintza egiten ematen dute, %28ak gehienetan egiten du 19ak noizbehinka egiten duen bitartean. Gehienetan zaletasunen bat egiten dutenen profila honako hau da: adin gehien duten pertsonak, emakumeak gehien bat eta baserri aldean bizi dira.

Antzeko portzentaia batean, **%47^a udaleko ekimen kultural zein kirol ekimenen batean parte hartzen du**. Gehiengoak, %23ak noizbehinka egiten du eta %20ak gehienetan. Adin gehien duten pertsonak dira gehien bat herriko ekimen kultural zein kirol ekimenetan parte hartzen dutenak. Aldeak kontutan hartuta, gehienak herri txikietan eta Gernikan bizi dira, Bermeon noizbehinka egiten duten bitartean.


Proporzio txikiago batean, **%35ak, gizarte- partehartze ekimenak** egiten dituzte, hiri, erligio, elkarte motakoa. Asteburutan edo gehienetan egiten dutenen kopurua antzekoa da. Aurreko kasuna bezala, adin nagusiko pertsonak dira gehien egiten dutenak eta baita emakumeak ere. Aldeak kontutan hartuta, herri txikietan eta Gernikan bizi direnak dira gehien egiten dutenak, eta Bermeotarrek noizbehinka egiten dutela adierazten dute gehien bat.

Antzeko portzentaia batean, **%32ak**, beraien denbora librean herritik **kanpoko ekimen kultural zein kirol ekimenetan** parte hartzen dutela adierazten du, nahiz eta gehiengoak, %22ak, noizbehinka bakarrik egin. Portzentaia hau bikoiztu egin da 2000 urteko ikerketako portzentaiarekin konparatzen badugu. Noizbehinka ekimen kultural zein kirol ekimenetan parte hartzeko Urdaibaitik kanpo joaten diren pertsonak Gernikan bizi dira eta adin ertaina eta ikasketa maila altua dutenak dira.

21 Udal agenda

21 Udal agendari dagokionez, **%17ak daki existitzen dela**, %83ak ez dakien bitartean.

14. Grafikoa. 21 udal agendari buruzko ezagutza.



21 Udal agendari buruz informazioa dutenak 55 urte baino gutxiago duten pertsonak dira, unibertsitate mailako eta erdi mailako ikasketak dituzte. Lanari dagokionez, ikasleak, kualifikazio maila altuetan lan egiten dutenak eta langabetuak dira gehien ezagutzen dutenak, nahiz eta egoera honetan dauden pertsona kopurua txikia izan.

Beraien egoera ekonomikoa kontuta hartzen bada, beraien egoera ona eta baita txarra moduan definitzen dutenak aurkitzen dira. Aldeak kontutan hartuta, ez dago diferentziarik ezta sexuaren arabera ere.

21 Udal agendaren inguruko gaiak planteatuko diren batzarren batean parte hartzeko interesari dagokionez, gehiengoak, **%63ak ez daki, %17ak interesa adierazten duen bitartean eta %20ak ez du nahi parte hartu.**

Interes gehien adierazten dutenak Bermeon bizi dira. Herri txikietan eta Gernikan berriz, ez dute eritzirik gai honen inguruan. Sexu aldagaia kontuta hartuz gero, ia ez dago ezberdintasunik emakume eta gizonen artean. Adinari dagokionez berriz, parte hartzeko interes gutxien adierazten dutenak 54 urte baino gehiago dituzten pertsonak eta gazteak dira. Ikasketa maila txikiena dutenek batzarren batean parte hartzeko interesa izango duten ez dakitela adierazten duten bitartean, ikasketa maila altua dutenen artean interesa dutenak eta interesik ez dutenak aurkitzen dira.

Laburpen modura, inguruaren naturarekin harremanetan dauden baloreenganako mirespena adierazten duten pertsona gehiago daude. Paisana, eta honek suposatzen duena, mendiak, kostaldea, hondartzak dira Urdaibai Biosfera Erreserban bizi direnek gehien baloratutako elementuak.

Galdetutakoen artean hamarretik bik ere lasaitasuna, giroa eta giza aspektuak adierazi dituzte. Antzeko portzentaia batean, ingurugiroa zaintzeko martxan jarri dituzten dispositiboak aipatu dituzte. Portzentaia txiki batek ekipamenduren bat aipatu du Urdaibaiko aspektu positibo moduan.

Gune natural honetaz gozatzeko honek dituen baldintza onei esker, galdetutakoen gehiengoak, beraien denbora librea paseatzeko erabiltzen dute eta antzeko proportzio batean gizarte harremanak izateko.

Populazioaren ia erdiak, kirolen bat egiten du, zaletasun bat egiten du edo herrian egiten diren ekimen kultural zein kirol ekimenetan parte hartzen du. Proportzio txikiago batean, galdetutakoek herriko hiri-ekimeneen batean parte hartzen du edo Urdabaitik kanpora doaz ekimen kultural edo kirol ekimeneen batean parte hartzeko.

Azkenik, galdetutakoen artean %17ak 21 udal agendaren inguruan informazioa du eta honekin batera, %17ak gai honen inguruko herriko batzarren batean parte hartzeko interesa adierazten du. Beste alde batetik, %20ak ez du interesik parte hartzeko eta besteek, %63ak ez daki ze eritzi eman gai honen inguruan.

Erantsi

2.1. Kuadroa. Herri bakoitzean batu diren produktuak. 2003

HERRIAK	Populazioa 2004	Batutako kg./herritarra		
		Papera	kristala	Ontziak
Ajangiz	437	20	15,5	8,9
Arratzu	358	5,4	15,2	6,4
Bermeo	17.367	22,8	18,4	8,3
Busturia	1.696	23,7	29,9	11,7
Elantxobe	464	12,5	29,2	5,7
Ereño	259	12,2	49,3	2,3
Errigoiti	486	7,1	14,7	2,2
Forua	1.020	12,4	17,7	7
Gautegiz-Arteaga	901	8,4	13,4	3,8
Gernika	15.623	28,7	22,9	7,2
Ibarrangelu	546	19,3	52,3	8,8
Kortezubi	376	8,9	45,1	5,9
Mendata	349	8,2	15,8	3,4
Mundaka	1.880	30	45,3	11,8
Murueta	289	**	29,7	1,6
Múxika	1.302	23,4	28,1	6
Nabarniz	232	10,9	35,5	8,9
Sukarrieta	341	48,5	66,3	18,7
Total Urdaibai	43.926	24,1	23,3	7,8

Oharra: Kimar informetik jasotako datuetatik eginda. Ingurugiroaren eta Urdaibai Biosfera Erreserbaren garapenaren egoera. Sevillano estrategiaren helburuen lorpenaren gradua. 2004ko Urria.

2004 urteko populazioa. Bizkaiko Foru Aldundia.

2.2. Kuadroa. Herri eta etxe bakoitzeko turismoa. 2003 urtea

HERRIAK	Turismoak	Etxeak 2001	Turismoak/etxea
Ajangiz	119	141	0,84
Arratzu	106	121	0,88
Bermeo	5.950	5.984	0,99
Busturia	743	582	1,28
Elantxobe	165	192	0,86
Ereño	120	76	1,58
Errigoiti	240	175	1,37
Forua	418	322	1,3
Gautegiz-Arteaga	458	307	1,49
Gernika	6.705	5.269	1,27
Ibarrangelu	271	231	1,17
Kortezubi	164	113	1,45
Mendata	167	118	1,42
Morga	217	133	1,63
Mundaka	668	723	0,92
Murueta	111	86	1,29
Múxika	726	414	1,75
Nabarniz	82	70	1,17
Sukarrieta	170	148	1,15
Total Urdaibai	17.600	15.205	1,15

Oharra: Eustat datuetatik eginda

2.3. Kuadroa. Herri bakoitzean lehenengo sektorean lanean dauden pertsonak. 1991-2001

HERRIAK	1991	2001
Ajangiz	20	9
Arratzu		8
Bermeo	1.719	1.207
Busturia	46	23
Elantxobe	63	24
Ereño	18	8
Errigoiti	63	8
Forua	34	17
Gautegiz-Arteaga	8	6
Gernika	141	116
Ibarrangelu	24	7
Kortezubi	33	18
Mendata	35	23
Morga	25	13
Mundaka	39	38
Murueta	19	4
Múxika	97	59
Nabarniz	37	14
Sukarrieta	6	3
Total Urdaibai	2.427	1.605

Iturria. Eustat

4. Kuadroa. Herri bakoitza eta motaren arabeko etxebizitza. 1991-2001 urtea

HERRIAK	1991				2001			
	Oinarri.	Bigarren mailakoa	Hutsik dauden etxeak	Guztira	Oinarri.	Bigarren mailakoa	Hutsik dauden etxeak	Guztira
Ajangiz	102	14	17	133	141	3	21	165
Arratzu	101	3	49	153	121	25	23	169
Bermeo	5.363	391	1.044	6.798	5.980	381	879	7.240
Busturia	489	539	48	1.076	582	437	134	1.153
Elantxobe	188	160	46	394	192	194	11	397
Ereño	71	8	27	106	76	24	10	110
Errigoiti	147	40	9	196	175	26	7	208
Forua	253	29	62	344	322	30	66	418
Gautegiz-Arteaga	236	87	101	424	306	173	30	509
Gernika	4.547	266	852	5.665	5.264	345	815	6.424
Ibarrangelu	170	264	62	496	231	259	18	508
Kortezubi	106	23	25	154	113	12	29	154
Mendata	106	43	19	168	118	52	25	195
Morga	100	–	64	164	131	84	15	230
Mundaka	520	694	34	1.248	723	586	80	1.389
Murueta	60	17	10	87	86	2	27	115
Múxika	383	59	114	556	412	181	22	615
Nabarniz	67	7	23	97	70	15	21	106
Sukarrieta	113	240	10	363	148	259	4	411
Guztira Urdaibai	13.122	2.884	2.616	18.622	15.191	3.088	2.237	20.516

Iturria. Eustat

4.1. Kuadroa. Herri bakoitza eta lizentzia emandako urtearen araberako etxebizitza

HERRIAK	2001	2002	2003
Ajangiz	1		
Arratzu	1		1
Bermeo	98	6	102
Busturia	21	9	55
Elantxobe	9		
Ereño			2
Errigoiti	5	4	1
Forua	1	6	2
Gautegiz-Arteaga	1	5	3
Gernika	102	18	118
Ibarrangelu		1	
Kortezubi	11	4	
Mendata	12		
Morga	6	5	5
Mundaka	24	2	15
Murueta	5	2	1
Múxika	17	2	10
Nabarniz	2	2	2
Sukarrieta	1		
Guztira Urdaibai	317	66	317

Iturria. Eustat

4.2. Kuadroa. Herri bakoitzeko populazioaren bilakaera 1991-2004 urtea

MUNICIPIOS	1991	2004
Ajangiz	361	437
Arratzu	345	358
Bermeo	17.848	17.367
Busturia	1.725	1.696
Elantxobe	546	464
Ereño	268	259
Errigoiti	430	486
Forua	910	1.020
Gautegiz-Arteaga	769	901
Gernika	16.053	15.623
Ibarrangelu	528	546
Kortezubi	393	376
Mendata	342	349
Morga	345	419
Mundaka	1.695	1.880
Murueta	197	289
Múxika	1.443	1.302
Nabarniz	252	232
Sukarrieta	285	341
Total Urdaibai	44.735	44.345

Iturria. Eustat. 1991

Bizkaiko Foru Aldundia. 2004

**4.3. Kuadroa. Familiaren batzbesteko neurria herriaren arabera.
1991-2004 urtea**

HERRIAK	1991	2001
Ajangiz	3,6	3,1
Arratzu	3,4	3,0
Bermeo	3,3	2,8
Busturia	3,4	2,8
Elantxobe	2,9	2,3
Ereño	3,9	3,3
Errigoiti	3,0	2,8
Forua	3,7	3,0
Gautegiz-Arteaga	3,3	2,8
Gernika	3,4	2,9
Ibarrangelu	3,0	2,4
Kortezubi	3,6	3,2
Mendata	3,2	2,9
Morga	3,4	3,0
Mundaka	3,0	2,5
Murueta	3,3	3,0
Múxika	3,7	3,2
Nabarniz	3,8	3,2
Sukarrieta	2,6	2,2
Total Urdaibai	3,3	2,8

Iturria. Eustat.

4.4. Kuadroa. Pertsona bakarreko familiak herriaren arabera. 1991- 2001 urtea

HERRIAK	1991	2001
Ajangiz	9	28
Arratzu	17	22
Bermeo	679	1.211
Busturia	68	132
Elantxobe	38	75
Ereño	13	20
Errigoiti	40	48
Forua	24	60
Gautegiz-Arteaga	36	81
Gernika	478	936
Ibarrangelu	37	90
Kortezubi	21	29
Mendata	23	27
Morga	17	32
Mundaka	106	238
Murueta	10	16
Múxika	44	84
Nabarniz	8	19
Sukarrieta	34	53
Guztira Urdaibai	1.702	3.201

Iturria. Eustat

4.5. Kuadroa. Langabezi tasa herriaren arabera. 2000-2005 urtea

HERRIAK	2000	2005
Ajangiz	2,3	3,6
Arratzu	2,4	2,3
Bermeo	6,7	7
Busturia	6,8	6,2
Elantxobe	5,1	7,8
Ereño	3,9	6,1
Errigoiti	2,1	6,7
Forua	5,7	5,5
Gautegiz-Arteaga	3,2	2,8
Gernika	7,5	6,9
Ibarrangelu	9,2	8,2
Kortezubi	3,6	6,5
Mendata	0,7	4,3
Morga	4,4	3,9
Mundaka	9,3	6,8
Murueta	4,8	5,5
Múxika	4,1	5,3
Nabarniz	7,7	1
Sukarrieta	2,8	6,4
Guztira Urdaibai	6,5	6,6

Iturria: Langai

4.6. Kuadroa. Errenta gordina per capita herriaren arabera. 2001 urtea

HERRIAK	Euroak
Ajangiz	10.452
Arratzu	11.398
Bermeo	8.914
Busturia	10.470
Elantxobe	8.712
Ereño	10.633
Errigoiti	10.962
Forua	9.570
Gautegiz-Arteaga	11.684
Gernika	10.119
Ibarrangelu	11.205
Kortezubi	10.133
Mendata	10.510
Morga	10.214
Mundaka	10.530
Murueta	11.548
Múxika	10.675
Nabarniz	10.274
Sukarrieta	17.038
Gernika-Bermeo	9.814
Bizkaiko Lurralde Historikoa	10.571
Euskadiko Autonomi Erkidegoa	10.823

Iturria. Eustat

Bibliografia

Bibliografia

Kimarr informetik jasotako datuetatik eginda. Ingurugiroaren eta Urdaibai Biosfera Erreserbaren garapenaren egoera. Sevillano strategiaren helburuen lorpenaren gradua. 2004ko Urria.

Zero Tailer Soziologikoa Urdaibaiko Biosfera Erreserbari buruzko iritzien ikerketa. 1995 eta 2000 urteak.